


TRANSIZIOKO HARAN GARAIK ETA MENDIAK

ARABA

A.15

Omecillo ibaia



Omecillo ibaia Arabako mendebaldeko muturrean jaiotzen da, eta lehen zatia Bobedako haranaren ardatz nagusia da. Baso naturalez estalitako haran hori erromesek, mandazainek eta gatz-meatzariek igarotzen zuten antzina-antzinatik. Ibaia ubidea pixkanaka handituz doa eta haren erriberak aberastu egiten dira, ibaiertzeko baso itxi bat sortzen duelako. Ia inor bizi ez den gune lasai horretako ur garbiek bertan uretako

fauna ugari izatea ahalbidetzen dute: esate baterako, amuarraina, ezkailua, uhandre palmatua edo suge gorbataduna. Landarediak babesturik, ur-zozoa eta uretxoria elikagaiak bilatzen ahalegintzen dira. Ibarra arian-arian zabaldu egiten da Espejorako antzinako erromatar bidearen ondotik; hemen zubi eder batek gurutzatzen du azken zatian urak isurtzera Ebrorantz bideratutako Omecillo ibaia.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

LANERAKO GAIK

- Ibaia zatiak, haranaren forma, ibilguaren ezaugarriak.
- Uren kalitatea: goiko ur—lasterraren eta beheko ur—lasterraren arteko konparaketa.
- Ibaiko ekosistema: urari loturiko biodibertsitatea.
- Ibaiko arrainak: espezieak, morfologia, elikadura, azturak.
- Euskal Herrian arriskuan dagoen fauna: bisoi europarra.
- Ibaiertzeko basoa: espezie eta komunitate bereizgarriak.
- Ibaia eta bere erriberen erabilerak: arrantza—barrutiak.
- Gizakiaren jarduerak inguruan: baso—ustiapenak, abeltzaintza estentsiboa.
- Komunikazio—bideak: erromatar galtzada, Donejakue bidea, gatz—meatzen ibilbideak.
- Monumentu—ondarea: Varonatarren Dorre—Jauregia eta kondaira.
- Ibaia zatiak: kutsadura, deforestazioa, isurketak, etab.